

**VITORIA-GASTEIZKO UDALAK SUSTATUTAKO “VITORIA-GASTEIZKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA” IZENeko PLANAREN IRAUNKORTASUN-TXOSTENAREN EDUKIA FINKATZEN DUEN 2010EKO AZAROAREN 29KO ERREFERENTZIA-DOKUMENTUA.**

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikulua araberako, I eranskinaren A) paragrafoan azaltzen diren planek (eta plan horien barne dago “Vitoria-Gasteizko hiri antolatzeko plan orokorra” delakoa) ingurumenean duten eraginari buruzko Ebaluazio Bateratua beharko dute, plangintzako lehen faseetan alternatiba egokienak aukeratzeko eta ingurumenean izango duten eraginaren analisia eta balorazioa egiteko, jarduera desberdinen ondorio metagarri eta sinergikoak kontuan hartuz.

Era berean, “Vitoria-Gasteizko hiri antolatzeko plan orokorra” izeneko plana hainbat planek eta programak ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen aplikazio-eremuan dago. Lege horren 9. artikuluan ezartzen denez, ingurumeneko organoak ezarriko ditu ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenaren xehetasun-maila eta zehaztasun-gradua erreferentzia-dokumentu bat emanez, eragindako herri-administrazioak eta publiko interesduna identifikatu eta haiei galdetu eta gero. Dokumentu horretan, gainera, kasu bakoitzean aplikatu beharreko ingurumen irizpide estrategikoak, ingurumen helburuen adierazleak eta iraunkortasun printzipioak adieraziko dira.

Vitoria-Gasteizko udalak 2010eko irailaren 29an hasi ditu izapideak “Vitoria-Gasteizko hiri antolatzeko plan orokorra” delakoak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruzko erreferentzia-dokumentua egiteko.

Abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren arabera, Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzari dagokio Plan eta programen ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedurak tramitatzea.

**AURREKARIAK**

Erreferentziako Dokumentuko eskabidearekin batera, indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko HAPOko Berrikuspenaren Aurrerakina idazteko Aurretiko Ikerketak jasotzen dituzten dokumentuak bidaltzen dira; hots, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 legearen 86. artikuluan aurreikusitakoak.

Aurretiko Ikerketen ondorioetan, HAPO idazterakoan kontuan hartu beharreko hainbat hausnarketa eta hasierako proposamen jasotzen dira, hurrengo hauekin lotutakoak: natura- eta kultura-ondarea, paisaia; populazioa eta bizilekua; ekipamenduak eta hiri-hornidurak; ekonomia-jarduera; mugikortasuna eta irisgarritasuna; antolamendurako tresnak.

Aipatutako dokumentazioa jaso eta gero, publiko interesdunaren eskura jarri zen espedienteko dokumentazio guztia, bai Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzaren egoitzan eta baita Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko web orrian ere.

Interesatu gisa akreditatzeko eta iradokizunak aurkezteko epea 2010eko azaroaren 15an amaitu zen. Izapide horretan inor ez da publiko interesatu gisa akreditatu eta ez dira iradokizunik aurkeztu.

Era berean, Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritza honek ondorengo erakunde haiei egin die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.

- Uraren Euskal Agentzia.
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta kirolerako Zuzendaritza
- Arabako Foru Aldundiaren Ingurumeneko Zuzendaritza
- Arabako Foru Aldundiaren Hirigintzako Zuzendaritza
- Arabako Kontzeju Elkarte
- IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Ekologistak Martxan elkarte.

Arauzko epea bukatuta, Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordeztatik, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol sailako Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen Zerbitutik, Arabako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza eta IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikotik proposamenak jaso dira.

Aipatutako erantzunak Erreferentziako Dokumentu hau egiterakoan kontuan izan dira.

Aipatutako dokumentazioa jaso eta gero, publiko interesdunaren eskura jarri zen espedienteko dokumentazio guztia, bai Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzaren egoitzan eta baita Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko web orrian ere.

## E B A T Z I D U

1. Ingurumen ondorioetarako soilik, Vitoria-Gasteizko udalak sustatutako "Vitoria-Gasteizko hiria antolatzeko plan orokorra" izeneko planaren erreferentzia-dokumentua egitea.

2. Txostena honakoa da:

### 2.1.- Planari aplikatu daitezkeen ingurumen-irizpide estrategikoak.

Plana egiteko, nagusiki Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020); Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010); Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean; ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenean; eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean jasotako irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuak oinarritzat hartuko dira.

Horretaz gain, "Hirigintza-Planeamenduak iraunkortasun-irizpidez idazteko eskuliburua"-ren jarraibideak jarraitu beharko dira (Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Saila, Martxoa, 2005).

Zehazki, hurrengo ingurumen-irizpideak kontsideratuko dira:

1. Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea<sup>1</sup>.

- 1.1. Planeamenduak erantzun behar dituen beharrak zorrotasunez azterzen<sup>2</sup>.
- 1.2. Dagoeneko artifizializatutako lurzoruak erabiltzen.
- 1.3. Nekazaritzako lurzoruak eta lurzoru naturalak babesten<sup>3</sup>
- 1.4. Hirigintzarako luraren erabilera lurzoruaren zigitatzea murrizten<sup>4</sup>.
- 1.5. Ahal den neurrian, gaur egun garatu gabe dauden eta 100 urteko itzulera epeko uholdeak jasateko arriskua duten eremuen artifizializazioa saihesten<sup>5</sup>.

<sup>1</sup> Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainak 30eko 2/2006 Legea.

<sup>2</sup> Hirigintza-planeamenduak iraunkortasun-irizpidez idazteko eskuliburua

<sup>3</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 9. Helburu Estrategikoa: Lurraldearen erabilera orekatua lortzea

<sup>4</sup> 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa

- 1.6. Herriaren jatorrizko nukleoetan eraikitako eta urbanizatutako ondarearen biziberritzen eta etxebizitza hutsak erabiltzen<sup>6</sup>
- 1.7. Lur kutsatuak berreskuratzen<sup>7</sup>
2. Hirietan bereizketa eta sakabanatzea saihestea<sup>8</sup>.
  - 2.1. Lurzoruaren erabilerak eta mugikortasun jasangarria modu integratua planifikatzea, garraio publikoko eta bizikleta-bideen garapen berrien zuzkiduraren bidez<sup>9</sup>
  - 2.2. Hiri-egitura itxi, trinko eta konplexuak sustatzen<sup>10</sup>.
  - 2.3. Nahiko altuak diren eraikuntza-dentsitateak sortzen<sup>11</sup>.
  - 2.4. Mugikortasuna gutxitzen eta garraio motorrik gabekoa eta publikoa sustatzen<sup>12 13</sup>.
  - 2.5. Familia bakarreko etxebizitza edo etxebizitza atxikien tipologiak ahalik eta gehien murriztuz<sup>14</sup>.
  - 2.6. Ekipamenduei eta espazio libreei dagozkien azalerak biztanleen beharretara egokituz<sup>15</sup>.
  - 2.7. Erabilera pribatuko espazio libreak ekidinez<sup>16</sup>.
3. Hiri-nukleoaren ingurumen-kalitatea hobetzea<sup>17</sup>.
  - 3.1. Berdeguneak sustatuz eta handituz<sup>18</sup>.
  - 3.2. Udalerriaren eremuan Eratzun Berdeak sortuz<sup>19</sup>.
  - 3.3. Berdeguneetako eta herri barruko ibai tarteetako ingurumen-kalitatea hobetuz<sup>20</sup>.
  - 3.4. Paisaia-faktorea udal-plangintzaren barruan sartuz<sup>21</sup>.
  - 3.5. Irizpide bioklimatikoak eta ingurumenaren kalitaterako irizpideak (konfort termikoa, zarata, kutsadura, etab.) barneratzea berdeguneak eta espazio publikoak diseinatzerakoan<sup>22</sup>.
4. Habitatak eta ingurune naturala mantentzea eta hobetzea<sup>23</sup>.
  - 4.1. Interes komunitarioko habitatei arreta berezia eskainiduz<sup>24</sup>.
  - 4.2. Landaredia kontserbatuz, bereziki, basoak eta ertzetako landaredia<sup>25</sup>.
  - 4.3. Espazio Natural Babestuetatik kanpo dauden eremuen konektibitatea babesten eta berreskuratuz<sup>26</sup>.

<sup>5</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 11. Helburu Estrategikoa: Klima aldaketara egokitzea

<sup>6</sup> Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainak 30eko 2/2006 Legearen 3. 3c) artikulua.

<sup>7</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 3. Helburu Estrategikoa: Lurzorua ez kutsatzea eta kutsatutakoa garbitzea..

<sup>8</sup> Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainak 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.

<sup>9</sup> Hirigintza Plangintza Jasangarritasuneko Irizpideekin Idazteko Eskuliburua. IHOBE. 2005eko martxoa

<sup>10</sup> Hirigintza Plangintza Jasangarritasuneko Irizpideekin Idazteko Eskuliburua. IHOBE. 2005eko martxoa.

<sup>11</sup> Zioen Azalpena II.2.-1). 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.

<sup>12</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 8. Helburu Estrategikoa: Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri batera bideratzea.

<sup>13</sup> Klima aldaketaren aurkako euskal plana. Iego Programa: Karbono gutxiago. Karbono gutxiago eta energia garbiafoak erabiliz produktutzea eta kontsumitzea eta karbono-hustulekuak kudeatzea". Garraio Sektorea. 16. Ekintza.

<sup>14</sup> 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa

<sup>15</sup> Hiriko eta tokiko iraunkortasunaren Espainiako estrategia. 2009ko Abendua.

<sup>16</sup> Hiriko eta tokiko iraunkortasunaren Espainiako estrategia. 2009ko Abendua.

<sup>17</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. Lehen zatia.

<sup>18</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 5. ekintza-lerroa, 9. Helburu Estrategikoa: Lurzoruaren erabilera orekatua lortzea.

<sup>19</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 4. ekintza-lerroa, 9. Helburu Estrategikoa: Lurzoruaren erabilera orekatua lortzea.

<sup>20</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 7. Helburu Estrategikoa: Gureaniztasun biologikoari eustea.

<sup>21</sup> 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainak 20koa, lurzoruari buruzko ligearen testu bategin onartzen duena 10.2 art.

<sup>22</sup> Hiriko eta tokiko iraunkortasunaren Espainiako estrategia. 2009ko Abendua.

<sup>23</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 7. Helburu Estrategikoa 7: Gureaniztasun biologikoari eustea.

<sup>24</sup> Kontseiluaren 1992ko ekainaren 21eko 92/43/CEE Direktiba, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbazioari buruzkoa.

<sup>25</sup> Euskal Herriko Izadiaren Kontserbazioari buruzko ekainak 30eko 16/1994 Legearen 2.e artikulua.

<sup>26</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 7. Helburu Estrategikoa: Gure biologiaz-berreskuratzea mantentzea.

- 4.4. Kudeaketa-plana izan ala ez izan mehatxatutako flora eta fauna espezien Lehentasuneko Banaketa Zonak, Interes bereziko eremuak eta Puntu Sentikorrek babestuz<sup>27</sup>.
- 4.5. Paisai naturala edota landa-paisaia babestuz, Ikus-Arro Katalogatuak bereziki kontuan hartuz<sup>28</sup>.
- 4.6. Euskadiko Naturgune Sarearen eta Natura 2000 Sarearen barne dauden guneak babestuz.
5. Aire kalitatea mantendu edota hobetu<sup>29</sup>.
- 5.1. Partikula eta igorpenen kontzentrazioa areagotzen ez duten proposamenak aurkeztuz<sup>30</sup>.
- 5.2. 1367/2007 Errege Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak betez<sup>31</sup>.
- 5.2. Artifizializatu ez dauden eremuetan izan daitekeen argi-afekzioa murriztu .
6. Ur kalitatea mantendu edota hobetu<sup>32</sup>.
- 6.1. Baliabide eta ingurune hidrikoak babestuz<sup>33</sup>.
- 6.2. Hondakin-uren tratamenduak isuriari eta inguru hartzaileari egokituz.
7. Hondakinen ekoizpena murriztean eta berriz erabiltzean eta birziklapenaren sustapenean oinarritutako hondakinen kudeaketa bermatzea<sup>34</sup>.
8. Energia-aurrezpena, energiaren eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea<sup>35</sup>.
- Berokuntzarako barrutiko instalazioak sustatzea, berokuntzako sistema zentralizatu hauekin bateragarriak diren hiri-egiturak diseinatuz.
9. Baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea<sup>36</sup>

Planak modu esplizituan ingurumen-irizpide estrategiko horiek guztiak nola eta zein neurritan garatzen dituen identifikatu behar du.

## 2.2. Ingurumen-iraunkortasun txostenaren hedadura, xehetasun-maila eta zehaztasun-maila.

Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legean aipatzen den ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan adierazitako ingurumenaren gaineko ebaluazio bateraturako azterlanean sartuta dagoela ulertu behar da.

Beraz, planak ingurumenean duen eraginaren baterako ebaluazioaren azterlana izango du eta ondorengo araudian ezarritako gutxieneko edukiak eta egiturak jasoko ditu: uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskina eta 9/2006 Legearen I. Eranskina.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioko azterlaneko atal bakoitzean jasotzen diren alderdien edukia eta norainokoa, planak sustatzen dituen esparruari eta jarduera zehatzei berariaz dagozkienak izango dira.

<sup>27</sup> 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Babestekoa

<sup>28</sup> Paisaiaren Europar Hitzarmena.

<sup>29</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 1. Helburu Estrategikoa: Aire garbia.

<sup>30</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010.

<sup>31</sup> Zarataren azaroak 17ko 37/2003 Legeak garatzen duen urriak 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, zonakatzeko akustikoari, kalitate-helburuei eta igorpen akustikoei dagokienez.

<sup>32</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010 2. Helburu Estrategikoa: Uraren kalitate ona

<sup>33</sup> 1/2006 legea, ekainak 23koa, Urarena

<sup>34</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 6. Helburu Estrategikoa: Hondakinak murriztea eta isurketarik ez egitea.

<sup>35</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 5. Helburu Estrategikoa: Energia kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea.

<sup>36</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010 4. Helburu Estrategikoa: Baliabide naturalen kontsumo arduratsua.

Aztergai dugun dokumentuaren ezaugarriak eta egin ditugun kontsultetatik ateratako ondorioak kontuan izanda, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanak (IEEBA) bere atalak garatu behar izango ditu, ondoren adierazten den zabalera eta zehaztasun-mailarekin:

### **2.2.1. Planaren helburu estrategikoen eta helburu horiek lortzeko kontsideratutako alternatiben deskribapena.**

IEEBAk (Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketak) planaren jarduteko eremua deskribatu eta horrek proposatzen dituen helburu zehatzak aurkeztu beharko ditu, era berean, helburu orokorrak nola zorrozki ingurumenekoak direnak, eta erreferentziatzko dokumentu honen 2.1 atalean aipatutako ingurumen irizpide estrategikoen egokitzapena aztertu beharko du. Era berean, proposatzen den aldaketa eragiten duten beharrezkoak justifikatu beharko dira.

Alternatibei dagokienez, IEEBAk modu labur eta argian proposatutako helburuak betetzeko plana burutu den bitartean kontuan hartu diren alternatibak azalduko ditu, eta baita horretarako erabilitako irizpide teknikoak ere. Gainera, aipatutako alternatibak aukeratzeko 2.1. atalean azalduko ingurumen irizpideak nola integratu diren esplizituki argitu beharko da.

Horregatik guztiatik, IEEBAk oinarritzat hartuko duen planaren proposamenak iradokitako esku-hartzeen kokaleku alternatibo posibleak, lurzoruaren ordenazioa, eta abar jaso behar ditu gutxienez, horiek irrazionalak direla nahikoa arrazoitzen ez bada.

### **2.2.2.- Beste plan eta programa batzuekiko elkarreaginaren analisia.**

Planak aplikazio-eremu bera duten beste planekin duen ingurumen-bateragarritasuna justifikatu behar da. Hierarkia maila altuago batean dauden planak identifikatuko dira eta horiekin planak duen bateragarritasuna aztertuko da. Aipatutako planak ingurumen-inpaktuaren gaineko baterako ebaluazioa izanez gero, planak/aldaketak aipatutako ebaluazioetan ezarritako jarraibideekin duen bateragarritasuna aztertuko da.

Beste batzuen artean, hurrengo plan eta programekin duen bateragarritasuna aztertuko da, eta egokia bada, baita ingurumen-inpaktuaren gaineko ebaluazio bateratuarekin duena ere:

- a) EAE ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.
- b) Araba erdialdeko Lurraldearen Zatikoa
- c) EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra) eta bere 1. aldaketa.
- d) EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.
- e) EAE-ko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- f) EAEko Ekonomia Jarduera eta Merkataritza Horniduretarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurraldearen Arloko Plana.
- g) EAEko Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako Lurraldearen Arloko Plana
- h) EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde Arloko Plana.
- i) Arabako errepideen Plana.
- j) EAE-ko Uholdeak Saihesteko Plan Integrala eta EAEko hiriguneak urpean geratzeko arriskua aztertzeke lana (2001-2005).
- k) Arriskuan dauden Espezieak Kudeatzeko Planak (bisoi, igaraba, zaparda eta uhalde enara).
- l) Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana 2008-2012.
- k) Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruaren inbentarioa.

### **2.2.3.- Planak eragiten duen eremuaren ingurumen-analisia, diagnostikoa eta balorazioa.**

IEEBAk ikerketa-esparrua definitu beharko du, eta horretan planak eragingo dituen eremu guztiak sartu beharko dira, horretarako erabilitako irizpideak espezifikatuz. IEEBAk azterketaren eremua mugatu behar du, erabilitako irizpideak zehaztuz. Eremua mugatu eta gero, identifikatutako alternatiba guztiak barne delarik, lurralde-eremu horretako ingurumenaren egoerari buruzko alderdi garrantzitsuenak aipatu behar dira, aurreikusitako erabileretarako duen

harrera-ahalmena eta plana aplikatu ezean egoera horrek izango duen bilakaera; eraginik handiena jasango duten aldeetako ezaugarriak azpimarratuko dira.

Horretarako, eremuaren balioa identifikatu behar da beharrezko xehetasun mailarekin, hurrengo aldean analisiaren bidez:

1) Eragin handia jasan dezaketen guneetako ingurumen-ezaugarriak (landaredia, fauna, flora, geologia, lurzorua, paisaia, hidrologia, hidrojeologia, kultura-ondarea,...). Kultura-ondareari dagokionez hurrengo adierazten da:

-Vitoria-Gasteizko udalerrian lege-babes berezia duen Arkeologia Ondarea hurrengo hau da:

- a. Kalifikatutako Kultura Ondasun gisa:
  - a.1. Santiago Bidea. EAetik igarotzerakoan, Santiago Bidearen Monumentu Multzokategoriarekin Kalifikatutako Kultura Ondasun izendatzeko espedientea kontuan izan beharko da (171. EHAA, 2010eko irailaren 6ko datarekin).
  - a.2. Arkaiako Arkeologia Eremua.
  - a.3. Kutzemendiko gotortutako Herrixka (haste-fasean).
- b. Inbentarioan sartutako Kultura Ondasun gisa:
  - b.1. Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoko Arkeologia Eremua.
- c. Arkeologia-presuntzioko eremu gisa: Aurretiko Ikerketetako 12.3.4 Informazioaren Analisia eta hasierako diagnostikoa puntuan jasotakoak.
- d. Oraindik haien lege-kalifikazioa egiteke duten beste Arkeologia Eremu batzuk daude (12.3.6 eta 12.3.7 atalak). Kasu horietan, Eusko Jaurlaritzak, kautelazko neurri gisa, babeseko erregimena aplikatzea gomendatzen du.
- e. 12.3.8 atalean jasotako azkeneko hamabi arkeologia-eremuak aurreko taldean sartu beharko lirarteke, eta Administrazio eskudunari (Eusko Jaurlaritzari), kasu bakoitzerako kalifikazioa egitea eskatu beharko litzaioke.

Erreferentziako Dokumentu honen eranskin gisa hurrengo dokumentuak jasotzen dira: alde batetik, egun Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren dokumentazioan agertzen diren udalerriko interes historiko-arkitektonikoa duten elementuen aurretiko zerrenda bat, eta baita horietako elementu bakoitzerako, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak bidalitako babesa edo/eta babes-proposamenak ere; eta bestetik, DFAren Ondare Historiko-Artistiko eta Arkeologikoko Zerbitzuaren erantzuna; horretan, Erreferentziako Dokumentu honetan sartu ezin daitezkeen Vitoria-Gasteizko HAPOnen sustatzaileko interesekoak diren gaiak azaltzen baitira.

2) Ingurumen mailan garrantzi berezia duten aldeak:

- 2.a) Batasunaren Intereseko Lekuak: ES2110015 Vitoriako Mendi Garaiak, ES2110014 Salburua, ES2110013 Arabako Lautadako Irla-Hariztiak, ES2110010 Zadorra Ibaia.
- 2.b) Salburuakko nazioarteko garrantziko hezegunea.
- 2.c) EAEko Hezeguneeen Lurraldearen Arloko Planaren hezegunak.
- 2.d) EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Katalogatutako Ikus-arroak (Amaritu, Argatxa, Armileko, Goroko Troka, Katigoste, Las Palomeras, Monasterioguren, Okako Troka, Argazi erreka, Santa Luzia, Tejerako erreka, Urbasoko erreka y Zaldiaran) eta Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Paisaiak (Badaia mendilerroa, Vitoriako Mendiak, Zadorrako goiko ibai-bidea, Arabako Lautadako Irla-hariztiak, *Zadorrako erdiko ibai-bidea*, Arrato mendilerroa, Arabako Lautadako Muinoak, Zadorra-Eraztun Berdea).

2.e) EAEko Korridore sarea: lotura-eremuak (Badaia-Arrato mendilerroa eta Vitoriako mendebaldeko mendiak); lotura-korridoreak (Valderejo-Vitoriako Mendi Garaiak, Vitoriako Mendi Garaiak-Salburua, Vitoriako Mendi Garaiak-Arabako Lautadako irla-hariztiak-Entzia; Vitoriako Mendi Garaiak- Zuatzuko irla-hariztia, Askarza irla-hariztia-Zerio irla-hariztia); Interes konektore berezia duten ibai-zatiak (Alegria Barrena, Errekabarri, Zerio, Egileta; Alegria Arganzubi; Zadorra ibaia).

2.f) Arabako Foru Aldundiko Korridore proposamena.

2.g) Jabari Publiko Hidraulikoa.

2.h) Balio agrologiko handiko lurzorua.

2.i) Hostazabalen basoak eta interes komunitarioko habitata.

2.j) Mehatxatutako flora eta faunako espezieen banaketa-eremuak. Onetsitako kudeaketa-planak dituzten mehatxupeko espezieen Interes Bereziko Aldeetan (bisoi, igaraba, zaparda) dagokion Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak igorri beharko duen derrigorrezko txostenean zehaztutakoa bete beharko da.

2.k) Gasteizko Akuiferoa eta horren birkarga eremuak eta baita lurpeko uren kutsadura jasateko arrisku handia duten eremuak ere.

2.l) Herri Onurako Mendiak eta Mendi Babesleak.

Erreferentziako Dokumentu honekin batera, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Zuzendaritzak bidalitako erantzuna eta dokumentazioa aurkezten da.

3) Planerako garrantzitsuak izan daitezkeen ingurumen-arazoak (uholde arriskuak, kutsatutako, eraldatutako edo higadura handiko lurzorua, erazteko jarduerak, kutsadura akustikoa, kutsadura atmosferikoa eta abar), 8/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, planak arrisku naturalen mapa bat jaso behar du. Erreferentziako Dokumentu honekin batera, 165/2008 Dekretuan eta horren eguneratzen dokumentuaren zirriborroan –IHOBek kontsulten bere erantzunean shape formatuan emandakoan- jasotako lurzoru kutsatuen kokapenak sartzen dira.

Azken finean, beren ingurumen-balioarengatik edota babes-mailarengatik edo edozein motako ingurumen-arazoak aurkezten dituztelako horiek dagokion proposamenaren kokapenean ekidin beharko liratekeen lurraldearen eremuak identifikatu beharko dira.

Ingurumenaren aldetik interes berezikoak diren baliabideak eta espazioak eta planaren esparruan ingurumenaren arloan dauden arazoak era kartografikoan jaso beharko dira, informazio hori bizkor eta erraz eskuratu ahal izateko.

#### **2.2.4.- Alternatiba tekniko eta ingurumen-alternatiba bideragarrien ingurumen-azterketa. Hartutako irtenbidearen justifikazioa.**

9/2006 Legearen 8.1 artikuluan arazoizko alternatibak, teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak direnak, identifikatzeko, deskribatzeko eta ebaluatzeko obligazioa ezartzen da. Horiek ez egotea bidegabekoa da, horiek irrazionalak direla frogatu ezik, aurretik ezarritako bideragarritasuneko irizpide teknikoak betetzea ezinezkoa dela kontuan hartuta.

Planean proposatutako aukera guztiek eta bakoitzak izan ditzaketen ondorio esanguratsuak identifikatu, deskribatu eta ebaluatu egin behar dira, eta ez da alderik egongo ondorio batzuk eta besteak ebaluatzeko kontuan izango diren eskakizunetan. Horretarako, aztertu diren eta gauzatu daitezkeen zentzuzko aukera guztien irudi zehatza azalduko da, eta aukerarik onenak ez direla uste izateko arrazoiak emango dira.

Azken finean, hartutako irtenbidea beste alternatiba tekniko eta ingurumen-alternatiba bideragarrien aurrean justifikatu behar da, eskua ez hartzeari buruzko 0 alternatiba barne.

#### **2.2.5.- Planak izan ditzakeen eraginak identifikatzea eta baloratzea.**

Proposamenak ingurunearen hainbat aldagaitan izan ditzakeen eraginak identifikatuko dira, batez ere, eragin kritikoak, hau da, oro har onartutako arau eta azterlan teknikoetan ezarrita dauden muga-balio edo gidak gainditu ditzaketen planaren jarduerak, horiek leuntzeko inolako aukerarik gabe, irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuko kontzeptu teknikoen arabera.

Identifikatutako eraginetatik esanguratsuak direnak argi aipatu beharko dira, eta horretarako 9/2006 Legearen II. Eranskinean ezarritako irizpideak erabili ahalko dira.

183/2003 Dekretuaren 5.2 atalean espezifikatutako bereiziz arreta berezia emango zaie honako alderdiei:

1. Ingurugiro-zona sentikorrek eta naturgune interes dutenen gaineko eragina.
2. Interes komunitarioko habitatak eta bertan dauden hostozabalen basoen gaineko eragina.
3. Mehatxatutako fauna eta floraren gaineko eragina.
4. Balio agrológico handiko lurzoruen gaineko eragina, nekazaritza-produktibitatearen galera eta Nekazaritza-sektorearen gaineko eragina, Nekazaritza-Basoko LAPeko V. kapitulua ezarritakoaren arabera.
5. Paisaiaren gaineko eragina.
6. Akuiferoen gaineko eragina.
7. Lurzoru artifizializatua gehitzea.
8. Baliabideen kontsumoa (ura, energia) areagotzea.
9. Hondakin gehiago sortzea.
10. Ibilgailuen trafikoa areagotzea eta egin dezaketen sarbide berrien ingurumen eragina.
11. Zarata arazoak.
12. Uholde arriskua.

Ebaluatzeko erabiliko den metodologia adierazi beharko da eta horretarako, hala badagokio, kalteak balioesteko izandako zailtasun teknikoak, ezagutzazkoak edota esperientziazkoak zehaztuko dira eta zailtasun horiek nola gainditu diren.

Planak eta bere baitako jarduerak ingurumenean izan ditzaketen eragin esanguratsuak eta horien arteko harremanak era kartografikoan jaso beharko dira, informazio hori bizkor eta erraz eskuratu ahal izateko.

### **2.2.6.- Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsaziozkoen proposamena.**

Justifikatu beharko da neurri zuzentzaileak edo osabidezkoak eskatzen dituzten eragin negatibo nabarmenak egotea, nahiz eta txosten honetan dagokion atalean adierazitako ingurumen-irizpide estrategikoak egoki integratu diren.

IEEBAk, identifikatutako ingurumen kalteak aztertu ondoren, kalte horiek arindu ditzaketen babes, zuzenketa eta konpentsatzaile neurriak garatuko ditu.

Besterik ezean, osabidezko neurriak hartuko dira, eragin negatibo nabarmen bat, kritikoa ez dena, ekiditea edo behar bezala arintzea ezinezkoa denean. Kasu horietan, beren eragina konpentsatu beharko da bidezko ingurumen-neurriekin, kontrako-ikurrekoekin edo esanahi berekoekin. Zehazki, azkenean aurrera eraman eta izadi-kapitalaren galeraren bat dakarten ekintzak daudenean aipatu izadi-kapitalaren handitzearen edo hobekuntzaren bidez konpentsatu beharko dira<sup>37</sup>.

Udalerrian planteatu daitezkeen etorkizuneko hirigintza-garapenek nekazaritza-sektorean sortu ditzaketen eraginetatik eratorritako neurri zuzentzaileak proposatzea iradokitzen da, EAeko Nekazaritza-Basoko LAPeko V. kapitulua ezarritakoaren arabera, eta, Elikagaien Nekazaritzako Politikari buruzko abenduak 23ko 17/2008 Legean ezarritako xede eta helburuekin bat etorriz.

Ingurumeneko jarraibideak ezarri behar dira plana garatzeko agiriatarako; jarraibide horiek agiritan xertatuz gero, kalte esanguratsuak mugatu, eta horrenbestez, ondoren neurri

<sup>37</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparruaren II. Programa 2007-2010. 2. Lehentasuna



zuzentzaileak eta konpentsaziozkoak hartzeko beharra gutxitzeko. Jarraibide hauek gutxienez planarekin zerikusia duten IEPren helburu estrategikoen jardura ildoetara eta helburuei erreferentzia egin beharko diete.

Halaber, eta ahal den neurrian, aurretiaz identifikatu behar da, berrikuspenean aurreikusi diren jardueren artean, zeini egin ahal izango zaion ingurumen ebaluazioa eta zeini ez.

Planaren kalteak saihestu, gutxitu edo konponduko dituzten neurrien eta alternatiben bideragarritasun ekonomikoari buruzko txosten bat osatu beharko du.

### **2.2.7.- Planaren eraginak gainbegiratzeko programa**

IEEBAk plana zuzen aplikatzen dela eta proposatutako zuzenketa eta oreka neurriak betetzen direla bermatzeko ikuskapen-programa bat definituko du, baita aurreikusi ez diren ingurumen eraginak identifikatzeko ere.

Horretarako, beharrezkoa da alde aurretik eragin esanguratsu bakoitzari dagokion adierazlea (kualitatiboa eta/edo kuantitatiboa) ematea. Adierazleak hautatzea horien jarraipena ahalbidetuko duten datu errealak jasotzeko aukerara egokituko da. Horiek ezartzeko kontuan hartuko dira *Tokiko Agenda 21eko Adierazleak 2003* gida-liburuan definitutakoak, IHOBEn *Hirigintza Plangintza Iraunkortasun Irizpideekin 2005* argitalpenean proposatutakoak, edo planan jasotako ingurumen helburura egokitzen diren beste batzuk.

Planak eta bere baitako jarduerak sor ditzaketen eraginik esanguratsuenak neurtzeko adierazleak ezarri ondoren, adierazle horietako bakoitza gainbegiratzeko arduraduna, iraupena eta aniztasuna izendatuko da. Bikoiztasuna saihesteko asmoz, dagoeneko existitzen diren ikuskapen-mekanismoak erabili ahal dira, beti ere planak adierazleari egindako ekarpena identifikatu ahal denean.

### **2.2.8.- Laburpen-agiria.**

Laburpen-agiri bat idatziko da ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinean ezartzen diren baldintzen arabera. Bertan argituko da, zehatz-mehatz eta publikoak, oro har, ulertzeko moduan, nolakoa izango den programa eta nolako eragina izango duen ingurumenean. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, batez ere, jendeari informazioa emateko.

### **2.2.9.- Dokumentazio grafikoa.**

Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanak dokumentazio grafikoa nahikoa jasoko du, informazioa azkar eta erraz ikusi ahal izateko. Dokumentazio grafikoa hori izan daiteke: taulak, grafikoak, figurak, argazkiak, eskala egokia duten planoak, eta abar. (I. Eranskina).

## **2.3.- Informazioa jasotzeko eta kontsulta egiteko moduak.**

Informazio eta kontsultarako moduari dagokionez, erakunde sustatzaileak honako jarduerak burutuko ditu:

a) Eragindako administrazio publikoei eta herritar interesatuei kontsulta egiteko, planaren lehen agiria eta Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Ebaluazio Bateratuaren Azterlana bidaliko zaizkie. Gutxienez, erreferentzia-dokumentuaren aurrekari atalean aipatutako eta identifikatutako Administrazio Publikoei eta herritar interesatuei egingo zaie kontsulta eta, gutxienez, 45 eguneko epea edukiko dute agiri horiek aztertu eta oharrak egiteko.

b) Planaren lehen agiria eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren azterlana jendaurrean jarriko dira Arabako Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den iragarkiaren bidez, eta gutxienez 45 eguneko epea egongo da agiri horiek aztertu eta oharrak

egiteko. Bere publizitatea bermatzeko helburuarekin, bi dokumentuak organo sustatzaileak duen sare telematikoaren leku batean sartuko dira eta hori sarrera askekoa izango da, ekainak 30eko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 legearen 9.1 Artikuluak ezartzen duen bezala.

#### **2.4.- Ingurumen-inpaktuaren gaineko Aurretizko Txostenaren eskabidea.**

183/2003 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, Vitoria-Gasteizko hiria antolatzeko plan orokorraren hasierako onespeneraren aurretik, Planaren behin-betiko onespenerako duen organo eskudunak, kasu honetan Vitoria-Gasteizko Udalak, ingurumen-organo honi ingurumen-inpaktuaren Aldez Aurretiko Txostena igortzea eskatuko dio. Aipatu eskabidea Planarekin edo lehenengo dokumentuarekin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren ikerketarekin batera bidaliko da, Erreferentziako Dokumentuan espezifikatutako eduki minimoekin.

**3.-** Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Web orrian aipatutako erreferentzia-dokumentua argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 29a.

**INGURUMENAREN PLANGINTZAREN ZUZENDARIA**

**FRANCISCO OLARREAGA TELLECHEA**

## I. ERANSKINA

### DOKUMENTAZIO TEKNIKO AURKEZTEKO ARGIBIDEAK

- 1.- Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren azterlanak hori idazterakoan parte hartu duten teknikari guztien sinadura izan beharko du. Atal monografikoak egonez gero, aipatu atalen arduradunak diren pertsonak identifikatu beharko dira.
- 2.- Kasu guztietan, datuak lortzeko erabili diren iturriak zehaztu beharko dira.
- 3.- Informazioaren kopia oso bat aurkeztuko da paperezko euskarrian eta euskarri digitalean. Sustatzaileak bi euskarrietan aurkeztutako informazioa bat datorrela erabat ziurtatu beharko du. Paperean aurkeztutako dokumentuak bezala, euskarri digitalean aurkeztutako dokumentuak ere bai aurkibideekin sailkatu beharko dira, fitxategi ezberdinetarako sarrera errazteko helburuarekin.
- 4.- Dokumentazioa aurkezteko erabiliko den formatu digitalak hurrengo Arauak jarraituko ditu:
  - a. Dokumentazioa aurkezteko lehentasunezko formatua CDa izango da, ahalik eta disko gutxienetan, informazio-euskarriaren edukiera ahalik eta gehien aprobetxatuz.
  - b. Disko bakoitzean dokumentazioaren aurkibide oso bat aurkeztuko da, karpeten eta azpikarpeten bidez garatuta, fitxategien mailara iritsi arte. Horiek ere barruan sartuko dira. Aurkibide horren lehentasunezko formatuak .html edo .doc izango dira, eta fitxategietarako hiperestekak izango ditu, diskoaren edukian zehar errazago nabigatzeko.
  - c. CDaren egituran sartutako karpeten eta fitxategien izenak esanguratsuak izango dira. Horrela ez bada, lehen aipatutako aurkibidean fitxategi bakoitzaren izena bere edukia identifikatzen duen deskribapen labur batekin agertuko da (gehienez lerro 1).
  - d. Karpeta eta fitxategien izenek hurrengo argibideak jarraitu beharko dituzte: alfabeto ingelesaren 26 letrak erabiliko dira (ñ eta azentua duten bokalak bezalako karaktereak saihestuz). Lerro hutsen erabilera saihestuko da, eta horien ordez “\_” (marra baxua) karakterea erabiliko da. Ezingo da “-” (marra ertaina) karakterea izenaren hasieran eta bukaeran erabili, baina bai erdian.
  - e. Fitxategiak formatu ezagunetan emango dira, .pdf, .doc, eta abar bezalakoetan, ez baldin badaude, .zip formatua erabiliko da.
- 5.- Organo sustatzaileak, momentu oro, bere datu-transmisioetan, izaera pertsonaleko datuak babesteko araudia betetzen dela bermatu beharko du.